



DISKOA

Emozioen soinu banda itzela



GALDERIZAGIRRE

Lisabö taldeko kideak: Eneko Aranzasti, Jabi Manterola, Xabi Zabala, Borja Toval, Sergio Gonzalez eta Karlos Osinaga.

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Soinu laino trinkoa eta sendoa erai-ki du Lisabök. Emozioen soinu banda eder bat, itzela. Tentsioa da nagusi, eustea. Intentsitatea, energia. Amorrua, ernegazioa, amildegia-er-tzean egotearen sentsazioa. Une batzuk bortitzak eta basatiak dira, zarata, ekaitza eta iluntasuna nabaritzen dira, eta beste batzuk leunagoak eta samurragoak, eta barealdia eta argitasuna ageri dira.

Post-hardcore kutsuko doinu gordi-nak dira, askotariko osagaiekin. Arretaz entzutea merezi du, behin baino gehiagotan, entzunaldi bakoitzean beste zerbait deskubritzeko, hamaika xehetasun eta ñabardura baitaude, eta Lisabören soinu lainoan ongi murgil-tzeko eta emozioak azaleratzeko.

Bere diskorik onenatarikoa da, one-

na ez bada. Lan dotorea, oso ongi osatua. Azala eta mamia. Dena bat da. Kantetan gitarrek, baxuek, bateriek, celloak eta ahotsek osatzen duten multzoa bezala, edukia eta aurkezpena osagarriak dira erabat: kantak, doinuak, hitzak, soinuaren kalitatea, azala, eta hitzak, argazkiak eta diskoa egiteko prozesua-aren gainerako nondik norakoak biltzen dituen liburuxka.

Zazpi urte iragan dira aurreko lana kaleratu zutenetik, eta taldeko partaideen artean aldaketa batzuk izan dira. Ivan Zabalegik eta Joseba Poncek taldea utzi dute, eta grabazio saioetan Aida Torres eta Maite Arroitauregi aritu dira Karlos Osinaga, Jabi Manterola, Eneko Aranzasti eta Xabi Zabale-ekin, eta Santi Noainek eta Okene Abregok ere parte hartu dute kolabora-

ETA EDERTASUNAREN LORRATZETAN BILUZTU GINEN LISABÖ

BIDEHUTS, 2018

tzaile modura.

Halaber, Martxel Mariskalek idatzi dituen hitzak bikainak dira, eta lan osoa ederki biribiltzeko, Ramon M. Zabalegik egin ditu liburuxkan ageri diren argazkiak.

Diskoa aurkezteko emanaldietan, Karlos, Jabi, Xabi eta Enekorekin batera, Borja Toval (Sacco) eta Sergio Gonzalez (Izaera, Sorkun) ariko dira. Zalantzarik gabe, ikusteko, sentitzeko eta bizitzeko moduko saioak izango dira. Besteak beste, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean ariko dira Donostiako Intxaurren kultur etxean, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, Iruñeko Indara aretoan, Bilboko Kafe Antzokian, Sarako UsoPop Festibalean, Bar-tzelonako Primavera Sound jaialdian eta Portoko Nos jaialdian. ●